

JAKINTZAGAIA: EKONOMIA (Batxi1)

- [KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK](#)
- [DESKRIPTORE OPERATIBOAK](#) (FUNTSEZKO KONPETENTZIAK)
- [OINARRIZKO JAKINTZAK](#)

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	LOTURA FUNTSEZKO KONPETENTZIEKIN (Deskriptore operatiboak)
1. Eskasiaren arazoa eta arlo ekonomikoko erabakiak hartzearen garrantzia baloratzea, sektoreetan duen eragina aztertuz eta sistemek eskaintzen dituzten soluzio alternatiboak alderatuz, errealitate ekonomikoaren funtzionamendua ulertzeko. (Azalpena)	1.1 Egungo errealitate ekonomikoa ulertzea, integrazio ekonomikoko prozesuak baloratuz, eta hartutako erabakiek sektore ekonomikoetan duten eragina eta horren ondoriozko desoreka sektorialak aztertuz, euskal testuinguruan ere bai. 1.2 Gaia jorratuko duen ikerketaren bidez, eskasiaren arazoa baloratzea, baita sistema ekonomiko ororen oinarritzko arazoen giltzarri erabakigarriak aukeratzeko beharra ere, sistemek eskaintzen dituzten soluzio alternatiboei buruzko konparazioak eginez. 1.3 Globalizazioak eta kooperazio-prozesuek ekoizpen-egitura globala, egitura ekonomikoa, enpresen portaera eta gizarte osoa aldatzen duten moduz gogoeta egitea. 1.4 Erabaki ekonomikoak modu indibidualean eta kolektiboan hartzeko garaian esku hartzen duten prozesuak ezagutzea, gizartean duten eragina aztertuz.	HKK2. HKK3. STEM2. KD1. KPSII3.2. KPSII5. EK1. EK2
2. Merkatuaren funtzionamendua ezagutzea eta ulertzea, merkatuaren akatsak analizatuz, akats horiek	2.1 Merkatuaren funtzionamendua eta merkatuan egiten diren transakzioen izaera ulertzea, ekonomia eta gizartea hobetzeko iturri gisa duten garrantziari buruz	HKK2. HKK3. STEM1.



ingurunean duten eragina aztertzeke eta erabaki ekonomikoak errazago hartzeke. (Azalpena)	gogoeta eginez. 2.2 Merkatuaren akatsak espiritu kritikoz aztertzea, akats horien ondorioak ebaluatuz eta izan ditzaketen soluzioei buruz hausnartuz. 2.3 Ekonomia-politikak, sektore publikoak esku hartzeke neurri gisa, duen garrantzia onartzea, ongizate-estatua mantentzeke eta sostengatzeko betetzen duen funtsezko eginkizuna baloratuz. 2.4 Euskal berezitasun fiskalari buruzko ikerketa-lanaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoak zerga- eta finantzaketa-sistema propioa izatearen ondorioak baloratzea, Ekonomia Itunak Estatuko gainerako lurraldeekiko zerga- eta finantza-harremanen elementu egituratzaile gisa betetzen duen eginkizuna aitortuz.	KD1. KD2. KPSII3.2. HK2. HK3. EK1. EK2.
3. Errentaren fluxu zirkularrean esku hartzen duten eragile ekonomikoen zeregina bereiztea eta baloratzea, haren interakzioak ulertuz eta sortzen dituen onurak eta desorekak zentzu kritikoan onartuz, garapen ekonomikoa nola gertatzen den eta gizartearen ongizatearekin zer lotura duen azaltzeke. (Azalpena)	3.1 Ekonomiaren garapena eta hazkundera eta gizarte-ongizatea nola gertatzen diren azaltzea, errentaren fluxu zirkularrean esku hartzen duten eragile ekonomikoen interakzioa zentzu kritikoan ulertuz eta baloratuz. 3.2 Errenta-fluxuaren ondoriozko hazkundera sortzen dituen desorekak eta onurak ezagutzea, desoreka horietarako balizko soluzio izan daitezkeen alternatibak planteatuz.	HKK2. HKK3. KPSII3.2. KPSII5. HK3. HK4. EK1. EK2.
4. Finantza-sistemaren eta diru-politikaren funtzionamendua ezagutzea eta ulertzea, ekonomia errealean dituzten ondorioak baloratuz eta finantzaerabakietan esku hartzen duten elementuak aztertuz, norberaren finantzak erantzukizunez eta autonomiaz planifikatu eta kudeatzeko eta finantza-erabaki arrazoituak hartzeke.	4.1 Finantza-sistemaren funtzionamendua ezagutzea eta ulertzea, ekonomia errealean dituen ondorioak baloratuz eta inbertsioan, aurrezkian eta finantza-produktuetan duen eragina aztertuz. 4.2 Eguneroko bizimoduan eragina duten erabaki ekonomikoak hartzerakoan, irakasgaiaren bidez eskuratutako finantza-ezagutzak erabiltzea eta aplikatzea, erantzukizunez planifikatuz eta kudeatuz, eta ezagutza horien egokitasuna eta ekonomia errealean izan ditzaketen ondorioak baloratuz. 4.3 Diru-politikaren berezko tresnak ezagutzea eta aztertzea, finantza-merkatuaren	HKK2. HKK3. KD4. KPSII1.2. KPSII3.2. KPSII5. EK1. EK2.



(Azalpena)	testuinguruan aplikatuz eta ikuspegi globaletik ekonomian duten eragina modu kritikoan baloratuz.	
5. Egungo ekonomiak aurre egin beharreko erronkak eta desafioak identifikatzea eta baloratzea, globalizazio ekonomikoaren, ekonomia berriaren eta iraultza digitalaren inpaktua aztertuz, ekitatea, justizia eta jasangarritasuna sustatzen dituzten ekimenak proposatzeko. (Azalpena)	5.1 Ekitatea, justizia eta jasangarritasuna sustatuko dituzten ekimenak proposatzea, egungo ekonomiak planteatzen dituen erronken eta desafioen identifikaziotik abiatuta, eta globalizazioak, ekonomia berriak eta iraultza digitalak herritarren ongizate ekonomiko eta sozialean eragiten duten eragina zentzu kritikoan aztertuz. 5.2 Egungo erronka ekonomikoak ulertzea, ingurunea modu kritikoan eta eraikitzailean aztertuz, ekonomia baldintzatzen eta eraldatzen duten elementuak identifikatuz eta erronka horiek planteatzen dituzten beharrei erantzungo dieten ekimenak sustatuz.	HKK2, HKK3, STEM5, KD5, KPSII1.2, KPSII3.2, KPSII5, EK1.
6. Egungo arazo ekonomikoak kasuen azterketaren, ikerketaren eta esperientziaz bidez analizatzea, analisi ekonomikorako tresnak erabiliz eta eragile ekonomikoen erabakiak baldintzatzen dituzten faktoreak kontuan hartuz, arazo horiek errazago ulertzeko eta behar indibidualei eta kolektiboek erantzungo dieten soluzio berritzaileak eta jasangarriak planteatzeko. (Azalpena)	6.1 Behar indibidualei eta kolektiboek erantzungo dieten soluzio sozioekonomikoak planteatzea, errealitate ekonomikoa ikertuz, zenbait faktore kontuan hartuz eta ekonomiaren esparruko berezko tresnak aplikatuz.	HKK3, STEM1, KPSII5, HKK3, HK4, EK1, EK2, EK3.

DESKRIPTORE OPERATIBOAK (FUNTSEZKO KONPETENTZIAK) Batxilergokoak

(HKK) HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA

(KE) KONPETENTZIA ELEANIZTUNA



HKK1: Euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten du, ahoz, idatziz, siglen bidez z edo multimodalki, jariotasunez, koherentziaz, zuzentasunez eta testuinguru sozial eta akademikoetara egokituz, eta elkarrekintza komunikatiboetan parte hartzen du, lankidetzan eta errespetuz, informazioa trukatzeko, ezagutza sortzeko eta iritziak argudiatzeko nahiz pertsonen arteko harremanak ezartzeko eta zaintzeko.

HKK2: Hainbat eremutako ahozko, idatzizko eta multimodalezko edo zeinuzko testuak euskaraz zein gaztelaniaz, jarrera kritikoz ulertzen, interpretatzen eta baloratzen ditu, eta arreta berezia jartzen du testu akademikoetan eta komunikabideetako testuetan, hainbat testuingurutan modu aktiboan eta informatuan parte hartzeko eta ezagutza eraikitzeko.

HKK3: Hainbat iturritatik datorren euskarazko eta gaztelaniazko informazioa modu autonomoan aurkitu, hautatu eta kontrastatzen du, eta, horretarako, haren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatzen ditu irakurketa-helburuen arabera, manipulatzeko eta desinformatzeko arriskuak saihestuz, eta ezagutza bihurtzen du, modu argi eta zorrotzean komunikatzeko, ikuspegi sortzaile eta kritikoa hartuz, jabetza intelektuala errespetatzearekin batera.

HKK4: Autonomiaz irakurtzen ditu literaturako lan garrantzitsuak euskaraz eta gaztelaniaz, eta erlazionatzen ditu bere testuinguru soziohistorikoarekin, aurreko eta ondorengo literatura-tradizioarekin eta haren ondareak gaur egun duen arrastoa aztertuz, obren interpretazio arrazoitua eraikitzeko eta partekatzeko, asmo literarioko lanak sortu eta birsortzeko eta pixkanaka mapa kultural bat osatzeko.

HKK5: Komunikazio-praktikak bizikidetzaren demokratikoaren, gatazkak elkarriketaren bidez kudeatzearen eta pertsona guztien

KE1: Arintasunez, egokitasunez eta zuzentasunez erabiltzen ditu bat edo gehiago, familiar hizkuntzaz eta hizkuntza ofizialez gain, ber komunikazio-beharrei bat-batean eta autonomiaz erantzuteko, eremu pertsonaleko, sozialeko, hezkuntzako eta profesionaleko egoera eta testuinguru desberdinetan.

KE2: Bere esperientzietatik abiatuta, banakako hizkuntza-errepertorioa modu sistematikoan zabaltzeko eta aberasteko estrategiak garatzen ditu, modu eraginkorrean komunikatzeko eta, aldi berean, hizkuntzen arteko ezagutzak eta komunikazioa transferitzeko.

KE3: Ikastetxean eta ingurunean dagoen hizkuntzaeta kultura-aniztasuna ezagutzen eta kritikoki baloratzen du, eta bere garapen pertsonalean integratzen du, aniztasun horrekiko errespetuzko jarrera erakusten du eta hizkuntzak kultura-ondare gisa baloratzen ditu



eskubideberdintasunaren zerbitzura jartzen ditu, erabilera diskriminatzaileak eta sexistak saihestuz eta baztertuz, bai eta botere-abusuak ere, komunikazio-sistemak modu eraginkorrean eta etikoan erabil daitezzen eta euskararen ohiko erabilerarekiko jarrera proaktiboa izan dadin laguntzeko.

(STEM) MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA eta ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA INGENIERITZARAKO KONPETENTZIA

STEM1: Arrazoiaketa matematikoaren berezko metodo induktiboak, deduktiboak eta logikoak erabiltzen ditu, baita metodo zientifikoaren arrazoiaketa hipotetiko-deduktiboa ere, aukeratutako modalitatearen berezko egoeretan, eta problemak ebazteko hainbat estrategia hautatu eta erabiltzen ditu, jarraitutako prozesua eta soluzioak kritikoki aztertuz eta prozedura birformulatuz, beharrezkoa izanez gero.

STEM2: Pentsamendu zientifikoa erabiltzen du aukeratutako modalitatearekin zerikusia duten fenomenoak ulertzeko eta azaltzeko, eta ezagutzan konfiantza du, garapen-motor gisa. Horretarako, galderak egiten ditu eta hipotesiak formulatzen, kontrastatzen edo egiaztatzen ditu behaketaren, esperimentazioaren eta ikerketaren bidez. Halaber, lanerako egokiak diren tresnak erabiltzen ditu, zehaztasunaren eta egiazkotasunaren garrantzia balioesten du, eta eredu zientifikoarekiko ondorio oinarrituak eta koherenteak ateratzen ditu, erabilitako metodoen irismenari eta mugei buruzko jarrera kritikoa erakutsiz.

STEM3: Proiektuak planteatu eta garatzen ditu, behar edo arazo bati irtenbidea emango dioten produktuak elkarlanean sortzeko eta/edo erabiltzeko prototipoak edo ereduak diseinatuz eta sortuz, talde osoaren parte-hartzea saiaturaz, sor daitezkeen gatazkak modu baketsuan

(KD) KONPETENTZIA DIGITALA

KD1: Bilaketa aurreratuak egiten ditu, eta Interneten bilaketa-motorrek nola funtzionatzen duten ulertzen du, baliozkotasun-, kalitate-, gaurkotasun- eta fidagarritasun-irizpideak aplikatuta, emaitzak modu kritikoan hautatuta eta informazioa modu egoki eta seguruan biltegitatuta, erreferentzia egiteko eta ondoren berrerabiltzeko.

KD2: Eduki digitalak sortzen, integratzen eta berregiten ditu, banaka edo taldeka, segurtasunneurriak aplikatuz eta, une oro, egiletza digitaleko eskubideak errespetatuz, bere baliabideak zabaltzeko eta ezagutza berria sortzeko.

KD3: Gailu digitalak, tresnak, aplikazioak eta lineako zerbitzuak hautatu, konfiguratu eta erabiltzen ditu, eta ikaskuntza digitaleko bere ingurune pertsonalean txertatzen ditu, komunikatzeko, lankidetzan aritzeko eta informazioa partekatzeko. Horretarako, haien ekintzak, presentzia eta ikusgarritasuna modu arduratsuan kudeatzen ditu sarean, eta herritartasun digital aktibo, zibiko eta gogoetatsua gauzatzen du.

KD4: Arriskuak ebaluatzen ditu eta neurriak aplikatzen ditu teknologia digitalak erabiltzean gailuak, horien pribatutasuna eta besteena, datu pertsonalak, osasuna eta ingurumena babesteko, eta teknologia horien erabilera kritikoa, legala, segurua, osasungarria eta iraunkorra egiten du.



konponduz, ziurgabetasunaren aurrean egokituz eta lortutako produktua proposatutako helburuen, iraunkortasunaren eta gizartean duen eragin eraldatzailearen arabera ebaluatuz.

STEM4: Ikerketa zientifikoen eta teknikoen elementu garrantzitsuenak argi eta zehatz interpretatzen eta transmititzen ditu, hainbat formatutan (grafikoak, taulak, diagramak, formulak, eskemak, sinboloak, hizkuntza matematiko-formala...), kultura digitala etikaz eta erantzukizunez baliatuz, zientziak eta teknologiak bizi-baldintzetan egiten duten ekarpena modu kritikoan baloratzeko eta ezagutza berriak partekatzeko eta eraikitzeko.

STEM5: Osasun fisikoa eta mentala sustatzeko eta ingurumena eta izaki bizidunak babesteko zientifikoki oinarritutako ekintzak planifikatzen eta abiarazten ditu, kontsumo arduratsua eginez, etikaren eta segurtasunaren printzipioak aplikatuz, balioa sortzeko eta bere ingurunea modu jasangarrian eraldatzeko, tokiko eremuan eta eremu globalean konpromisoak hartuz, herritartasun arduratsua gauzatuz.

STEM6: Ikerketa zientifikoak eta bere aplikazio eta aurrerapen zientifiko-teknologikoek gizartearen garapenean eta orainak eta etorkizunak planteatzen dizkieten erronken aurrean erabaki arrazoituak hartzean jokatzeko duten papera argudiatzen du.

KD5: Konponbide teknologiko berritzaileak eta iraunkorrak bilatuz bere kabuz bere arazo eta behar digital zehatzetarako, bere gaitasunak digitala hobetzeko modu gisa, eta teknologia mota horien bilakaera baloratzen du ikuspegi jasangarri eta etikotik.

(KPSII) KONPETENTZIA PERTSONALA, SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKOA

KPSII1.1: Baikortasuna, erresilientzia, autoeraginkortasuna eta helburuen bilaketa modu autonomoan indartzen ditu, ikaskuntza eraginkorra izan dadin.

KPSII1.2: Nortasun autonomoa garatzen du, eta aldaketak, parte-hartze

(HK) HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA

HK1: Bere nortasunaren dimentsio sozial, historiko, zibiko eta moralari buruzko gertaerak, arauak eta ideiak aztertzen ditu, bere heldutasun pertsonala eta soziala sendotzen laguntzeko, herritarren kontzientzia eta kontzientzia arduratsua lortzeko, autonomia eta espiritu kritikoa garatzeko, eta besteeikiko eta ingurunearekiko elkarrekintza baketsua eta errespetuzkoa ezartzeko.



soziala eta bere jarduera propioa modu konstruktiboan kudeatzen ditu bere bizitza zuzentzeko.

KPSII2: Bizimodu jasangarria modu autonomoan hartzen du eta norberaren eta besteen ongizate fisiko eta mentalari erantzuten dio, gizartean mundu osasuntsuago bat eraikitze laguntza bilatuz eta eskainiz.

KPSII3.1: Besteen emozioekiko eta esperientziekiko sentsibilitatea erakusten du, eta taldeak pertsonengan duen eraginaz jabetzen da, nortasun enpatiko eta independentea sendotzeko eta bere adimen emozionala garatzeko.

KPSII3.2: Zereginak, baliabideak eta erantzukizunak modu orekatuan banatzen ditu talde batean, helburuen arabera, eta ikuspegi sistemikoa bultzatzen du, helburu partekatuak lortzen laguntzeko.

KPSII4: Hainbat iturritatik datozen datuak, informazioa eta ideiak alderatu, aztertu, ebaluatu eta laburbiltzen ditu, ondorio logikoak modu autonomoan lortzeko eta horien fidagarritasuna baloratzeko.

KPSII5: Epe luzera, ezagutza eraikitze laguntza eta prozesuak planifikatzen ditu, eta ezagutzaren eremuak erlazionatzen ditu, ezagutza hori transmititzeko, ideia sortzaileak proposatzeko eta arazoak autonomiaz ebazteko aukera emango dioten ikaskuntza-prozesu autoerregulatuak garatzeko.

(EK) EKINTZAILTZA- KOMPETENTZIA

EK1: Beharrak eta aukerak ebaluatzen ditu eta erronkei aurre egiten die, zentzu kritiko eta etikoarekin, iraunkortasuna ebaluatuz eta, ezagutza tekniko espezifikoetatik abiatuta, ingurunean izan dezaketen inpaktua egiaztatuz, testuinguru lokaletara zein globaletara zuzendutako ideia eta

HK2: Europako integrazio-prozesuari, Espainiako Konstituzioari, Autonomia Estatutuari, giza eskubideei eta norberaren historia eta kulturaondareari buruzko printzipioak, idealak eta balioak ezagutzen, aztertzen eta aplikatzen ditu hainbat testuingurutan, modu kritiko eta kontsekuentean, eta, aldi berean, talde-jarduera guztietan parte hartzen du printzipio eta prozedura demokratikoetan, berdintasunarekiko konpromiso etikoan, gizarte-kohesioan, garapen iraunkorrean eta munduko herritarren lorpenean oinarritutako jarrerarekin.

HK3: Funtsezko eta gaurkotasuneko arazo etiko eta filosofikoen aurrean iritzi propioa eta arrazoitua hartzen du, balio, sinesmen eta ideien aniztasunari elkarriketaren aldeko jarrerarekin aurre eginez, diskriminazio eta indarkeria mota guztiak baztertuz, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta erantzunkidetasun eraginkorra aktiboki sustatuz.

HK4 : Gure bizimoduaren eta ingurunearen arteko interdependentzia- eta ekomendetasunharremanak aztertzen ditu, eta, horretarako, giza ekintzen aztarna ekologikoaren azterketa kritikoa egiten du, eta konpromiso etiko eta ekosozial arduratsua erakusten du Garapen Iraunkorrerako Helburuak eta klima-aldaketaaren aurkako borroka lortzera bideratutako jarduera eta ohiturekin.

(KAKK) KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPIDE KULTURALERAKO KOMPETENTZIA

KAKK1: Edozein garaitako kultura- eta arteondarea hausnartu, sustatu eta kritikoki baloratzen du, ondare horren berezitasunak kontrastatuz eta bere nortasunetik abiatuz, aniztasunari datxekion adierazpen-askatasuna,

irtenbide berritzaileak aurkezteko eta gauzatzeko, proiektzio profesional ekintzailea duten eremu pertsonal, sozial eta akademikoan.

EK2: Norberaren eta besteen indarguneak eta ahuleziak ebaluatu eta hausnartzen ditu, autoezagutza- eta autoeraginkortasun-estrategiak erabiliz, ezagutza ekonomiko eta finantzario espezifikoak barneratzen ditu, eta tokiko testuingurueta eta testuinguru globalera transferitzen ditu, lankidetzak eta talde-lana arinduko duten estrategiak eta trebetasunak aplikatuz, beharrezko baliabideak bildu eta optimizatzeko, ekintzara esperientzia edo ekimen ekintzaile baliotsua eramango dutenak.

EK3: Ideia eta konponbide berritzaileak sortzeko prozesua gauzatzen du, eta erabakiak hartzen ditu, zentzu kritiko eta etikoarekin, proiektuak planifikatzeko eta kudeatzeko ezagutza tekniko espezifikoak eta estrategia arinak aplikatuz. Halaber, egindako prozesuari eta lortutako emaitzari buruzko gogoeta egiten du, besteentzako balioaren azken prototipo bat egiteko, arrakastaren eta porrotaren esperientzia kontuan hartuta, ikasteko aukera bat baita.

berdintasuna eta aberastea defendatzeko



KAKK2: Ondarearen hainbat adierazpen artistiko eta kulturalen berezitasunak eta intentzionalitateak ikertzen ditu, harrera aktiboko eta gozameneko jarrera baten bidez, horiek gauzatzeko testuinguru, bitarteko eta euskarri desberdinak bereiziz eta aztertuz, bai eta horiek ezaugarritzen dituzten lengoaia eta elementu tekniko eta estetikoak ere.

KAKK3.1: Ideiak, iritziak, sentimenduak eta emozioak sormenez eta espiritu kritikoz adierazten ditu, bere ekoizpen kultural eta artistikoak zorroztasunez eginez, modu aktiboan parte hartzeko giza eskubideen sustapenean eta praktika artistikoaren ondoriozko identitate pertsonalaren sozializazio- eta eraikuntzaprozesuetan.

KAKK3.2: Ea deskubritzen duen autoadierazpena, gorputz-interakzioaren eta hainbat tresna eta lengoaia artistikorekin esperimentatzearen bidez, eta ea aurre egiten dien egoera sortzaileei, jarrera enpatiko eta kolaboratiboarekin, autoestimuaekin, ekimenarekin eta irudimenarekin.

KAKK4.1: Sormenez hautatzen eta integratzen ditu hainbat bitarteko eta euskarri, bai eta teknika plastikoak, ikusizkoak, ikus-entzunezkoak, soinuizkoak edo gorputzezkoak ere, proiektu artistiko eta kultural iraunkorrak diseinatzeko eta ekoizteko, eta eskaintzen dituzten garapen pertsonal, sozial eta laboralerako aukerak aztertzen ditu, interpretazioaz, egikaritzeaz, inprobisazioaz edo konposizioaz baliatuta.

KAKK4.2: Bere ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak planifikatu, egokitu eta antolatzen ditu, sormenez eta eraginkortasunez erantzuteko ekoizpen kultural edo artistiko indibidual edo kolektibo batetik eratorritako jarduerai, lengoaia, kode, teknika, tresna eta baliabide plastiko, bisual, ikus-entzunezko, musikal, gorputzezko edo eszenikoak erabiliz, prozesua

zein azken produktua baloratuz eta eskaintzen dituzten aukera p
sozial, inklusibo eta ekonomikoak ulertuz.



OINARRIZKO JAKINTZAK

A. Erabaki ekonomikoak

1. Ekonomia, beharrak, ondasunak eta eskasia. Energia-baliabideen mendekotasunaren eta gainustiapenaren ondorioekiko sentsibilizazioa*. Gizarteharremanen eduki ekonomikoa. Erabaki ekonomikoek hainbat sektoretan duten inpaktua ezagutzea: Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia-sektoreen bilakaera eta horren ondoriozko desoreka sektorialak. Modelizazioa, interakzio ekonomikoak ulertzeko tresna gisa.
2. Erabaki ekonomikoak hartzeko prozesua. Arrazionaltasuna. Aukera-kostua*. Kostu berreskuraezinak. Analisi marjinala. Pizgarriak eta igurikapenak. Jokoen teoria. *Efizientzia. Arriskua eta ziurgabetasuna.
3. Ekonomia-antolamendu eta ekonomia-sistemak; balorazioa eta konparazioa*.
4. Finantza-erabakien plangintza eta kudeaketa: inbertsioa, aurrezkia eta kontsumoa. Dirua eta transakzioak. Diruaren funtzioak eta diru-formak. Arriskua eta etekina. Bankuek ekonomian betetzen duten zereginari buruzko gogoeta kritikoa. *Finantzaproduktuen funtzionamendua, hala nola maileguak, hipotekak eta horien ordezkioak*. Aseguruak.
5. Portaeraren ekonomia. Arrazionaltasun ekonomikoaren desbideratzeak. Erabaki ekonomikoak eta etika.
6. Errealitate ekonomikoa aztertze metodoak: metodo zientifikoa, modelizazioa eta esperimentu edo entsegu ekonomikoak.

B. Errealitate ekonomikoa. Mundua ikuspegi mikroekonomikotik ulertzeko tresnak

1. Trukea eta merkatua.* Merkatu motak eta funtzionamendua*. Irudikapen grafikoak. Elastikotasuna. *Merkatu-akatsak eta sektore publikoaren esku-hartzearen balorazio positiboa*. Kostua/etekina analisia.

C. Errealitate ekonomikoa. Mundua ikuspegi makroekonomikotik ulertzeko tresnak



1. Makroekonomia. Eragile ekonomikoak eta errentaren fluxu zirkularra.* Eskari erantsia, eskaintza erantsia eta horien funtzionamendua.
2. Hazkunde ekonomikoari eta garapenari buruzko analisi kritikoa. Hazkundearen faktoreak*. Errentaren banaketa: efizientziaren eta ekitatearen arteko erlazioa.* Garapen sozialaren adierazleak*. Ongizatea eta bizi-kalitatea.
3. Lan-ekonomia. Lan-merkatuen funtzionamendua eta joerak. *Iraultza digitalak eta teknologikoak merkatu horretan eragindako aldaketen balorazio kritikoa. Langabezia motak. Ondorioak eta neurri zuzentzaileak. Soldata-arrakala. Euskal Autonomia Erkidegoko lan-merkatuaren berezitasuna*
4. Nazioarteko merkataritza, integrazio ekonomikoko prozesuak eta horien ondorioak. Protekzionismoa eta merkataritza askea. *Europako Diru Batasuna*
5. Finantza-sistema, haren funtzionamendua eta ondorioak*. Finantza-panoramaren bilakaera. Dirua. Diruaren tipologia eta dirua sortzeko prozesua.

D. Ekonomia-politikak

1. Ekonomia positiboa eta ekonomia normatiboa. * Estatuaren esku-hartzea eta horren justifikazioa. Ekonomia-politika eta haren ondorioak*.
2. Zerga-politika. Euskal Autonomia Erkidegoko fiskalitatea eta Ekonomia Ituna. Ongizate-estatua eta horren finantzaketa. Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu publikoak, generoaren ikuspegitik. Solidaritate-printzipioa eta zergen balio sozialaren onarpena. Defizit publikoa, zor publikoa eta horien ondorioak. Ezkutuko ekonomia*.
3. Diru-politika eta prezioen egonkortasuna. Diru-merkatuaren funtzionamendua. Inflazioa: azalpen-teoriak. Diru-politikek inflazioan, hazkundean eta ongizatean duten ondorioak*.

E. Espainiako eta Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren erronkak testuinguru globalizatuan

1. Globalizazioa: azalpen-faktoreak, aukerak eta arriskuak. Krisiaren, aukera gisa, onarpena eta balorazioa. Desberdintasunen gutxitzea/handitzea: azpigarapena. Pobrezia herrialde garatuetan: Euskal Autonomia Erkidegoaren kasua*.
2. Ekonomia berria eta iraultza digitala*. Ekonomia kolaboratiboa. Ekonomia zirkularra. Iraultza digitalak enpleguan eta errentaren banaketan duen inaktuari buruzko irizpen kritikoak. Biztanleria aktiboa iraultza digitalaren erronketara egokitzeko estrategia.
3. Ongizate-estatuaren etorkizuna*. Pentsioen jasagarritasuna. * Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren zahartzearen problematika*.



Migrazio-fluxuak eta horien inplikazio sozioekonomikoak.

4. Beherakada ekonomikoari buruzko teoriak.

5. Garapen Iraunkorraren Helburuak (GIH) eta egungo erronka ekonomikoak*. Aztarna eta zor ekologikoa. Tokiko kasuen azterketa: Garapenerako 2030 Agendari Euskal Autonomia Erkidegoak egiten dion ekarpena; gizarte- eta ekonomia-itunak.

** Legearen arabera, asteriskodunak ezinbestekoak dira.*

Jakintza guztiak oinarritzkoak dira, baina asteriskodunak, ezinbestekoak.

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOEN AZALPENA

1. Eskasiaren arazoa eta arlo ekonomikoko erabakiak hartzearen garrantzia baloratzea, sektoreetan duen eragina aztertuz eta sistemek eskaintzen dituzten soluzio alternatiboak alderatuz, errealitate ekonomikoaren funtzionamendua ulertzeko.

Eskasiaren arazo ekonomikoa osotasunean aztertu behar da, baita sektoreei nola eragiten dien ere; gainera, sistema ekonomikoek proposatzen dituzten soluzio alternatiboak aztertu beharko dira, horietako bakoitzaren abantailak eta eragozpenak modu kritikoan baloratzen ikas dadin. Horregatik, behar-beharrezkoa da ikasleak arazo horri buruz ikertzea, eta, horretarako, behar den informazioa zenbait iturritan bilatu eta tratatzea, matematika-arrazoibidearen berezko metodo inductiboak eta deductiboak erabiltzea eta, ondoren, ikerketa horren emaitza komunikatzea, hizkuntza tekniko egokia erabiliz.

Egungo errealitate ekonomikoaz jabetzeak, bestalde, erabaki arduratsuak hartzeko garaian gure portaera hobeto ulertzeko aukera ematen du, bai norberaren beharrak ase nahi direnean, bai baliabideak zuzen banatu nahi direnean.

Era berean, globalizazioak eta kooperazio eta integrazio ekonomikoko prozesuek, ekoizpen-egitura globala ez ezik, egitura ekonomikoa eta gizartearen osotasuna ere nola aldatzen duten hausnartu beharko da.

2. Merkatuaren funtzionamendua ezagutzea eta ulertzea, merkatuaren akatsak analizatuz, akats horiek ingurunean duten eragina aztertzeke eta erabaki ekonomikoak errazago hartzeko.

Ikasleek merkatu moten eta konpetentzia-ereduen funtzionamendua ulertu behar dute, eskaintzan eta eskarian gertatzen diren aldaketen ondorioak interpretatu eta aurreikus ditzaten eta horren arabera jardun dezaten. Bestalde, ekonomiaren funtzionamenduan esku hartzeko beharra azaltzen duten merkatuaren akatsak eta mugak espiritu kritikoz hauteman eta aztertu behar dituzte, ekonomia-politikako zenbait neurriren bidez. Horren guztiaren ondorioz, ikasleek sektore publikoaren zeregin erregulatzailea eta ekonomia-politikako neurriak ezagutuko dituzte, eta politika horiek aukera-berdintasunean, hazkundera eta errentaren birbanaketan dituzten ondorioei buruz gogoeta egingo dute.

Era berean, erakunde- eta politika-arloko euskal berezitasuna kontuan hartuta, ikasleek Euskal Autonomia Erkidegoko berezitasun fiskalari buruzko ikerketa-lan bat egingo dute, eta, horren bidez, zerga- eta finantzaketa-sistema propioa izatearen ondorioak baloratuko dituzte. Batik bat Ekonomia Ituna nabarmendu beharko dute, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko zerga- eta finantza-harremanak egituratzen dituen elementua den heinean. Horretarako, horri buruzko informazioa bilatuko dute, euskarri digitalean nahiz analogikoan, eta modu kolaboratiboan arituko dira —horrek dakartzan jarrerak eta ohiturak sustatu beharko dira—.Ondoren, informazio hori zentzuz eta hizkuntza tekniko egokia erabiliz partekatuko dute.



3. Errentaren fluxu zirkularrean esku hartzen duten eragile ekonomikoen zeregina bereiztea eta baloratzea, haren interakzioak ulertuz eta sortzen dituen onurak eta desorekak zentzu kritikoan onartuz, garapen ekonomikoa nola gertatzen den eta gizartearen ongizatearekin zer lotura duen azaltzeko.

Errealitate ekonomikoa ikuspuntu makroekonomikotik ulertuko bada, eragile ekonomikoek garapen ekonomikoan eta gizartearen ongizatean duten zeregina aztertu beharko da. Horietako bakoitzak garapen horretan laguntzen du bere partaidetzarekin, betiere lanaren, aurrezkiaren, gastuaren, zerga-politikaren edo dirulaguntzen bidez, besteak beste.

Errenta-fluxuaren ondoriozko hazkundeak onurak sortzen ditu, baina baita desorekak ere, hala nola langabezia eta kostuak, enpresa-kontzentrazioaren ondoriozko migrazio-fluxuak, ezkutuko ekonomia edo ingurumen-jasangarritasuna. Ikasleek elementu horiek ezagutu eta baloratu gero, garapen ekonomikoa nola gertatzen den azaltzeko eta egoera problematikoetarako alternatibak planteatzeko behar diren jakintzak eskuratuko dituzte.

4. Finantza-sistemaren eta diru-politikaren funtzionamendua ezagutzea eta ulertzea, ekonomia errealean dituzten ondorioak baloratu eta finantzaerabakietan esku hartzen duten elementuak aztertuz, norberaren finantzak erantzukizunez eta autonomiaz planifikatu eta kudeatzeko eta finantza-erabaki arrazoituak hartzeko.

Bizitzan zehar ditugun premia ekonomikoak desberdinak direla kontuan hartuta, ikasleek finantza-sistemaren funtzionamendua ezagutu behar dute, baita finantzasistemak inbertsioarekin, aurrezkiarekin, zorpetzearekin, aseguruarekin eta abarrekin lotuta eskaintzen dituen produktuak ere. Horrela, finantza-erabakiak hartzeko gaitasuna hobetuko dute eta gastu pertsonalak autonomiaz planifikatu eta kudeatuko dituzte.

Era berean, garrantzitsua da ikasleek ulertzea finantza-sistemak norantz jotzen duen, gizarte- eta teknologia-aldaketei dagokienez eta gaur egun planteatzen diren erronkei dagokienez.

Gainera, ikasleek jakin behar dute zer tresnek emango dieten aukera dirupolitikak aztertu eta baloratzeko eta, egungo finantza-esparruaren barruan, politika horiek inflazioan, hazkundera eta ongizatean dituzten ondorioak ulertzeko.

5. Egungo ekonomiak aurre egin beharreko erronkak eta desafioak identifikatzea eta baloratzea, globalizazio ekonomikoaren, ekonomia berriaren eta iraultza digitalaren inpaktua aztertuz, ekitatea, justizia eta jasangarritasuna sustatzen dituzten ekimenak proposatzeko.

Egungo ekonomiak erronka eta desafio handiei egin behar die aurre, harreman ekonomikoak gero eta konplexuagoak diren testuinguru globalizatuan. Testuinguru berri horretan, ekonomia berriak eta iraultza digitalak enpleguan eta errentaren banaketan duten eragina hauteman behar da.



Ikasleek modu kritikoan baloratu behar dute beren portaera kontsumitzaile, erabiltzaile eta balizko errenta-sortzaile gisa. Horretarako, globalizazioa eta globalizazioarekin lotutako arazoak ezagutu eta aztertu behar dituzte. Ezagutza horrek bere ingurune hurbilean ekimenak sor daitezzen eta ekonomian modu aktiboan parte har dadin eragin dezake, berdintasuna, kontsumo arduratsua, etengabeko hobekuntza eta gizarte-ongizatea sustatzen dituzten ekintzen bidez.

6. Egungo arazo ekonomikoak kasuen azterketaren, ikerketaren eta esperimentazioaren bidez analizatzea, analisi ekonomikorako tresnak erabiliz eta eragile ekonomikoen erabakiak baldintzatzen dituzten faktoreak kontuan hartuz, arazo horiek errazago ulertzeko eta behar indibidualei eta kolektiboei erantzungo dieten soluzio berritzaileak eta jasagarriak planteatzeko.

Errealitate sozioekonomikoaren azterketa konplexua da. Horregatik garrantzitsua da errealitatea sakonago ulertzen lagunduko duten eta errealitatean esku hartzeko laguntza emango duten zenbait analisi-metodo erabiltzea eta, horien bidez, gizartearen hobekuntzan eta ongizatean lagunduko duten baliozko proposamenak eta soluzioak eskaintzea. Garrantzitsua da ikasleek ekonomia esperimentalaren berezko tresnak erabiltzen ikastea, adibidez, hurbileko gaiei buruzko esperimentu ekonomiko errazak diseinatzea eta martxan jartzea, oinarrizko proiektu ekonomiko-enpresarial baten kostuetekina aztertzea edo errealitate ekonomikoari buruzko kasuak metodo zientifikoaren bidez aztertzea.

Bestalde, interesgarria da errealitatea portaeraren ekonomiaren ikuspegitik aztertzea, eta, alderdi ekonomikoez gain, beste faktore kognitibo, psikologiko, soziologiko, emozional eta ingurumeneko batzuk ere kontuan hartzea, egungo arazoei erantzun dakien.

[Dokumentu ofiziala. Iturria: Hezigunea](#)



Sergio Tejero, Koldo Mitxelena BHiko "BeA" (Berrikuntza metodologikoaren Arduraduna)-(r)en 'KMk', Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago.

Jatorrizko informazioa eta legedia, [Hezigunean](#).

